

# Euskalingua 10

## Aurkezpena

Irakurle hori,

*Euskalingua* 10 zenbakia aurkeztera najatortzu.

Hasteko aipamen teknikoak egingo dit, argitarapenaren ardura dauan taldeko kide batzuen aldaketa adieraziz. Editore orrian irakurri dagikezun moduan, neuk, Maribi Unamuno, hartu deutsot zeregina orain arte egin dauan Esti Amorrorturi. Lagun ditut bideratze eta taitutze lanean Esti Izagirre eta Lorea Unamuno Mendebaldekoak eta honeekin batera, Jon Sanchez, EHUKo Ingeniaritza Goi Eskolako Aholab taldeko kidea, dogu formatu kontuetan.

Aurrerantzean *Euskalingua* ingelesez be irakurteko moduan izango dala aipatu nahi dot, ekimen honi interesgarri ereizteaz gan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskararen Sustapenerako Zerbitzuak horretarako behar dan sustapen ekonomikoa eskaini dauala adieraziz.

*Euskalingua* 10 honen edukiari dagokionez, guztira sei artikulu ditu. Corpusaren arloan Eneko Barrutiak idatzitako “Bermeoko arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa: II” irakurri daiteke, *Euskalingua* 9n autore berak argitaratutakoaren jarraipena berau. Herriko euskararen eta zehatzago arrantza langintzako lexiko berezituaren lekuko, batez be informantearen hizkeran oinarrituta eratutako artikulua da.

Hizkuntzalaritza teorikoaren arloan Ibon Coterón, Iñaki Gaminde eta Mitxel Kaltzakortaren artikuluak ditugu. Coterónek hiru artikuluko segida eskainiko deusku; ondorengo *Euskalingua* bitan jarraituko dau, beraz, oraingo honek subjektu eta objektu kontzeptuen arteko asimetria aldarrikatzen daben teorien kontra eraikitzen dau artikulu hau, asimetriaren aldeko teorietan kontrako adibideak ipiniz.

Iñaki Gamindek aditzari heltzen deutso, zehatzago esanda, *jakin* eta *eduki*-ren erabilera datibodun adizkietan lantzen dau, aipamen bibliografikoak eta herri hizkeran jasotako datuetan oinarritutako paradigmatik osatu ondoren, emaitzak eta proposamenak eskainiz.

Mitxel Kaltzakortak, galdegaia dala eta, Altubek proposatutakoaren kontrako adibideak aurkezten ditu, hain zuzen be, *Hamaika abere ipuin* eta *Bizkaiko herri-alegia* liburuetan galdegaia aditz aurrean barik atzean erabilten dala hasiera perpausetan erakusteko asmoz.

Hizkuntzalaritza aplikatuaren arloan hezkuntzako da Gurutze Ezkurdiarena eta konputazionala Aholab taldeak aurkezten dauana. Ezkurdiaren artikuluak derrigorrezko irakaskuntzako eskola curriculumean azaltzen diren datuetan oinarrituta irudikatzen dan, irudikatu daitekeen eta , agian, irudikatu ezin daitekeen Euskal Herriaz, Euskal Herri honen lurraldeaz, inguruneaz, kulturaz, hizkuntzaz dihardu.

Aholab taldeak giza ahotsaren azterketan urrats bat gehiago dan algoritmoa aurkezten dau ahotsaren kodifikazioan, ahotsaren ezagutzan eta, oro har, sistema barrietan aplikatuta, intonazio egokiagoa lortu ahal izateko.

Artikuluok, bakoitzak bere arloan, ekarpena egiten dabe; gustuko izateaz gan, danon formakuntzan osagarri direlakoan dakartzuguz.

Gogoratzeko dinotsut, oraingoan irakurle zaitugun hori, hurrengo edozein zenbakitan artikulugile izan zaitekezela, eta orain arte jaso eta argitaratu ditugun gaietan literaturari dagozkionak gitxitan azaldu arren, horretarako be badabela lekua *Euskalingua* aldizkari honetan.

Maribi Unamuno, editorea  
victoria.unamuno@ehu.es